

Folklore eta folklokeria

Deia, 1977-08-27.

Folklore, herri-kultura da.

Baina, noski, ez da herri baten kultura osoa, eta ezta kultura baten esentzia geldi eta finko bat ere.

Herri bakoitzak berezkoak dituen ohiturak berez eta eten gabe aldatzen joan dira, eta, hala, folklorea ez da *argazki* bat, *filma* bat baizik. Esan nahi dut, ohitura hoiek mugitzen joan direla, ez dela une berezi bateko irudi geldi bat. Hala, herri kultura lehen egiten joan den bezala, gaur ere egunero ari gara egiten. Honetxegatik, lehengoa gaurkoarekin lotzeko, joan diren ohiturak gaur gogora ekartzea oso jakingarria eta onurakorra iruditzen zait.

Zer izan garen adierazten digu.

Eta hau garrantzizkoa da gaurko gure egoera batzu ulertzeko.

Hemen, oso konforme nago.

Baina honek ba du arrixko bat: Firma hau imajen batean geratu eta argazki horixka eta geldi huts batean geratzea.

Eta gure herritasunak ez du hortan geratu behar.

Ihartuko ginateke.

Orain dela urte batzu, ETA-ren hasieran-edo, sortu zen gure artean folklokeriaren aurkako kanpaina bat. Folklore hutsean geratzearen aurkako asmoa zen hura. Eta, alde hontatik begiratuta, ba zuen zentzua. Baina aurreragi ere joan zirela uste izan nuen orduan, eta baita orain ere. Folklokerian aurkako eraso horrekin folklorea bera ere kolperatzen baizuten.

Folklokeria hutsean geratzea, kaltegarri da; baina folklorearen inguruan egiten diren kultura lanak, handiak eta onuragarriak izan ditezke, eta izaten dira.

Nik beste alde batetik ere defendatu nuen orduan folklorea, eta orain ere berdintsu defendatzen dut: Gure herriko folklore bidea bakarra da gure herriaren zati handi batentzat ulertzen duen kultura bidea, eta hoiek ezin ditugu, elitismo batean, alde batera huts, eta ahaztu.

Hala ere, ezin gara gure jai eta ospaketan behe mailako folklore hutsean geratu.

Behar genuke soka-tiraz eta asto-lasterketaz eta karrozaz eta ezpatadantzaz gainera antzerkia eta bertsolaritza eta kantaldia eta idazlehiaketa eta musika eta hizketaldia eta erakusketa eta euskal-zinema eta beste goimailagoko bideak egiten saiatu.

Gorakadako helburu hau beharrezko du gaur gure jai-egitarauak.

Gure herriaren arima ez da klise zahar batean geratu; joan den hau ez dugu ahaztu nahi, eta gogora-bide bezala behar dugu landu, baina gure herria ezin da errepetitiboa den jai-mota baten muga estuetan geratu, arriskutsu baita, batez ere gure gazteengan pentsatzen badugu.

Behar dugu Folklorea landu.

Baina ez dugu Folklorekeri alper eta antzu batean geratu behar.